

Europako emantzipazio-ereduak #EuroEmantzipatu jardunaldian

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) eta Bizkaiko Foru Aldundiak Europan funtzionatzen duten emantzipazio-ereduak landu dituzte erreferentziazkoak izan daitezkeenak Euskadin islatzeko.
- Jardunaldian Jordi Bosch, arkitektoa eta Pompeu Fabra Unibertsitateko (UPF) irakaslea, izan da testuingurua azaldu eta bertaratu diren gazteekin politikak aztertzeko.

Bilbo, 2018ko apirilaren 26a. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK), Bizkaiko Foru Aldundiarekin (BFA) elkarlanean, #EuroEmantzipatu jardunaldia antolatu du gaur Bilbo Berrikuntza Faktoriako Dock gunean. Gazteek gurasoen etxetik irten eta bizitza autonomo bati ekitearen garrantzia eta horretarako dauden oztopoak izan dituzte ardatz. Ekarpen modura, Europan funtzionatzen duten emantzipazio ereduak landu dira eta gazteekin elkarlanean erreferentziazkoak izan daitezkeen politikak aztertu dira.

Bizitza proiektu propio baten garrantzia

Jardunaldira ongi etorria Maialen Olabek, EGK-ko presidentek, eman du. Olabek EGKren konpromisoa adierazi du “emantzipazioaren arazoaren aurrean”. Izan ere, Euskadiko batza besteko emantzipazio-adina 30 urtekoa da, “behin gazte izateari utzitakoan”, EGK-ko presidentek adierazi duenez. Elkartearen plataformaren funtzio nagusia gazteak eta administrazioen arteko zubi-lana egitea izanik, emantzipazioaren gaian Euskadin aplikatu daitezkeen neurriak identifikatzea izan da jardunaldiaren helburua. Kasu honetan, Olaberen hitzetan, Europako ereduak aztertuta “bertan funtzionatzen duten politikak euskal gazteengan zein iritzi sortzen duten” jakitea.

Funtzionatzen duten ereduak

Jardunaldiaren erdigunean Jordi Bosch arkitektoa eta Pompeu Fabra Unibertsitateko (UPF) irakaslearen ekarpenak egon dira. Adituak azaldu duenez, azken hamarkadako testuingurua “oso negatiboa” izan da emantzipatu nahi duen gaztearentzat. “Krisi ekonomikoak gazteen lan baldintzak bereziki prekarizatu ditu, lan merkatuaren ezegonkortasuna nabarmena izan da eta etxebizitzaren prezioaren burbuilak gazte askori lehen etxea (izan erosita, izan alokairuan) hartzea oso zail egin die”, zehaztu du Boschek.

Europako politika zehatzetan begirada jarritakoan, UPFko irakasleak azpimarratu du emantzipazio gaietan Europan aurreratuen dauden herrialdeek “etxebizitza-politika ongizate estatuaren erdigunean” jarri dutelako lortu dutela “dauden egoeran egotea”. “Herrialde hauetan etxebizitza eskuratzeko politikak ez dira behar larriak dituzten kolektiboetara mugatu, baizik eta gizartearen sektore zabalagoetara iritsi dira, gazteetara kasu”, jakinarazi du UPFko irakasleak.

Ildo horretatik, Boschek kasu konkretu batzuk aipatu ditu: “Kasu batzuetan etxebizitza sozialen eraikuntzaren bidez lortu da, horretarako diru laguntza zuzenak emanda edo hobari fiskalen bitartez; besteetan, etxebizitza ordaintzeko laguntza zuzenen aldeko apustua egin da. Bi politika hauen arteko konbinazio bat izan da historikoki emantzipazioa errazteko neurri publiko eraginkorrena”.

Bestetik, Boschek nabarmendu du gazte baten emantzipazioan “elementu askok” hartzen dutela parte. Horregatik, adituaren ustetan ez da nahikoa gazteei bideratutako etxebizitza politikak martxan jartzea, hauek “hankamotz” geratzen baitira “enplegu edo gazteria politika sendo” batzuk gabe.

Jardunaldiarekin amaitzeko, bertaratutako gazte eta adituek emantzipazio-politikei buruz parte-hartze dinamika bat burutu dute. Eginiko ekarpen guztiekin txosten bat egingo da eta eskariak erakunde publikoei helaraziko dizkie EGK-k.

Olabek adierazi duen bezala, “jardunaldi hau EGK-k BFArekin duen lankidetzaren hitzarmenaren markoan” burutu da. EGK-ko presidentek azpimarratu du honen helburua “gazteek identifikatutako beharrei” erantzutea dela.